

Unitate didaktiko hau 5-6 urte dituzten hurrekin egingo dugu. Proiektu honetarako aukeratutako gaia “animaliak” da. Honekin, munduko eta ekosistema ezberdinetako animaliak eta haien ezaugarriak ezagutuko dituzte. Gainera, beste helburu zehatz batzuk lortzea ahalbidetuko digu, hala nola arreta mantentzea, parte-hartzaile aktiboa izatea, ekimena erakustea eta interesa sorraraztea ikasleen artean.

Proiektua aurrera eramateko, aurrerago azalduko dugun hamar saio iraungo dituen jarduera bat prestatu dugu. Saio bakoitzean ezarritako helburuak lortzera bideratuko gaituzten ekintza ezberdinak egingo ditugu. Ekintza hauek azkenean hurrekin gaiaren inguruko kontzeptu mapa bat egitera eramango gaitu, aldez aurretik animaliak, haien ezaugarriak eta kontinenteak landuta daudela.